

DEBA BAILARAKO INDUSTRIALDEA, S.A.

Sozietatearen izena

Deba Baitarako Industrialdea, S.A.

IFK

A20094561

Izaera

Sozietate Publikoa.

Kontabilitate-araubidea

Pribatua.

Aurrekontu-araubidea

Partida murriztaileak dituen balioespena.

Sorrera

Sozietatea 1984ko irailaren 19an sortu zen eskritura publiko bidez, Elgoibarko Industrialdea, S.A. izena zuela, eta Eusko Jaurlaritzak 1984ko uztailaren 17an hartutako erabaki bidez baimenduta, eta sozietate publiko deklaratu zuten honako honen babesean: [24/1990 DEKRETUA, urtarrilaren 30ekoa, «Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua, A.B.»-k partaidetza dueneko Baltzu jakin batzuen izaera publiko deklaratzeko dena.](#)

2001eko ekitaldian, Eibarko Industrialdea, S.A., Mendaroko Industrialdea, S.A. eta Mutrikuko Industrialdea, S.A. sozietateen bat-egitea gertatu zen xurgapen eta likidaziorik gabeko ondorengo iraungitze automatiko bidez, eta haiek, oinordetza unibertselez, beren aktibo eta pasibo guztiak sozietate xurgatzaileari eskualdatu zizkioten, Elgoibarko Industrialdea, S.A.ri, zeinak geroago Deba Beheko Industrialdea, S.A. izena hartu baitzuen, honako honen babesean: [303/2001 DEKRETUA, azaroaren 20koa, Eibarko Industrialdea SA, Mendaroko Industrialdea SA eta Mutrikuko Industrialdea SA sozietate publikoak xurgapenaren ondorioz deuseztatzea onartzen duena.](#)

2012ko uztailaren 28an, [96/2012 DEKRETUA, maiatzaren 29koa, Deba Goieneko Industrialdea SA sozietate publikoa, xurgapen bidez, azkentzeko baimena emateko dena](#) delakoak baimena eman ondoren, Deba Beheko Industrialdea, S.A.(xurgatzailea) eta Debagoieneko Industrialdea, S.A. (xurgatua) sozietateen ezohiko batzar nagusietan bi sozietateek xurgapen bidez bat egitea onartu zuten, eta hau erabaki: xurgatutako sozietatea azkentzea, eta haren ondare sozial osoa sozietate xurgatzaileari eskualdatzea; azken horrek, beraz, xurgatutako sozietatearen eskubideak eta betebeharrak bereganatu zituen oinordetza unibertsealaren bidez. Era berean, egungo izena hartzea erabaki zuten: Deba Baitarako Industrialdea, S.A.

Sail-atxikipena

Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna.

JESN

4110 Higiezinaren sustapena.

Sozietatearen helburua

Xedea industria-ekimena eta -inbertsioa bultzatu eta sustatzea da Debagoienean eta Debabarrenean honako hauek eginez:

- Industriak ezartzeko lur egokia sustatzea urbanistikoki, horretarako hirigintza-egitasmoak eta hirigintza-proiektuak sustatu eta idatziz, birpartzelazioak, konpentsazioa edo hirigintza-arloko legedian aurreikusitako beste edozein aukera erabiliz; bai eta edozein titulupean industriarako hiritartu eta sustatzeko lurra erostearen bidez ere.
- Pabiloi eta eraikin osagarri osatutako industria-guneak eraikitzea, eta haiek kudeatzea titularitatea erabat eskualdatu arte.

Sailkapena kontabilitate nazionalean


Eskualde Administrazioiko Herri Administrazioak.

Kapital soziala

14.873.115 €

Kapital sozialaren osaera

Sprilur, S.A.	% 51,00
Gipuzkoako Foru Aldundia	% 24,43
Debagoieneko eta Debabarreneko gainerako udalak	% 24,57



Administrazio Kontseilua

Administrazio Kontseilua da sozietatea ongien kudeatzea eta ordezkatzeko dagokion sozietateko kide anitzeko organoa. Honako hauek dira ekitaldiko urteko kontuak egin dituzten Administrazio Kontseiluko kideak:

Izena:

Alfredo Etxeberria Murua jauna
Oscar Alberdi Sola jauna
José Migue Artaza Artabe jauna
Mikel Oregi Goñi jauna
Iñaki Villanueva Muñoz jauna
Javier Pérez López jauna
Ángel Martín Ríos jauna
Miren Lore Martínez Axpe andrea

Honen proposamenez izendatua:

Elgoibarko Udala (presidentea).
Sprilur (idazkaria).
Sprilur.
Sprilur.
Sprilur.
Sprilur.
Gipuzkoako Foru Aldundia (idazkariordea).
Gipuzkoako Foru Aldundia.

EAEko Sektore Publikoaren proposamenez izendatuta: % 62,50

Urteko aurrekontuak

www.euskadi.eus

Ekitaldiko urteko kontuak, kudeaketa-txostena eta aurrekontuen likidazioa

[Ikuskaritza-txostena, ekitaldiko urteko kontuak eta kudeaketa-txostena, Kapital- eta ustiapen-aurrekontuen likidazioa, eta Programatutako helburuen betetze-mailari buruzko memoria.](#)

Ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak

Aktiboa guztira	22.999.570 €
Ondare garbia	22.548.911 €
Negozio-kopuruen zenbateko garbia	345.889 €
Batez besteko langile-kopurua	5

Sozietatearen helbidea

Ibitarte industrialdea 5, 1. solairua. 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa).

Webgunea

www.sprilur.es